

2012-12-02

***Astelena 12:** Ateratzen naiz Saint Maurretik Parisko hospitalera administrazioaren ardurapean. Hara iristerakoan E.R.I.S ak arduratzen dira nitaz.

***Asteartea 13:** Goizeko 10:30k aldera ebakuntza egiten didate. Aurretik anestesia osoa hartuta. ERIS ak denbora guzian nire gainean egon ziren: gelatik kirofanoraino, kirofano barruan, esnatze gelan, kirofanotik gelaraino.

***Asteazkena 14:** Ikusten dudun mugimenduen arabera, jada hospitateletik ni kanporatzea nahi zuten, (zibilezko tipo bat etorri zen, hatz markak hartu zidaten. Hori normalean transfer protokoloan dago). Ez dakigu zergatik, atzeratu zuten irteera. Goizegi zelako segurazki.

***Osteguna 15:** Goizeko zazpiretan ERISak esaten didate trasladatua izango naizela eta prestatzeko. Itzulerako bidaia ERISak eurak arduratu ziren.

- Goizeko 10etan iristen naiz Saint Maurreko kartzelara. Iritsi bezain laister hemengo medikoarengana deitzen didate. Zer tratamendu hartu behar dudun azaltzen dit hemengo medikoak, Parisekoak esan diotenaren arabera.

- Egun hortan esaten didate, asteazkena 21ean etorriko dela Saint Maurreko Hospitalelik ORL espezialista bat; *'sudur barnean utzi didaten sare protektoreak'* kentzera.

***Asteazkena 21:** ORL-a etortzen da eta kentzen dizkit sare protektor hoiek.

***Larunbat 24:**

-Arratsaldeko 19:00etan : Sudurretik odoletan hasten naiz eta momentuan Administrazio Penitentiarioari ohartarazten diot estaiatzko kartzeleroaren bitartez. Esanez orain dela 10 egun sudurreko ebakuntza egin didatela.

ERANTZUNA: SAMUrri ohartarazi diotela eta 20 minutuz sudurra eztatzen egon behar naizela. Ez bada gelditzen abisatzeko zeren haiek 'prest daudela'. Estaiako kartzeleroari esaten diot 'arduraduna etor dezala egoeraren grabedadea konfirmatzera'. 'Ez dela sudurretik atera odol sinple historio bat'. Ez da inor etortzen. Estaiako kartzeleroak esaten digu 'le chef il s'enfoute et ils nous laissent ici avec le problema nous tout seuls'. Izteko ordua denez, atea itxi eta joaten dira. Ordu erdi beranduago hemorragia gelditzen da.

-Goizaldeko 01:45 .Sudurretik berriro odolez hasten naiz eta arratsaldean egin bezala 'sudurra eztatzen eta konpresekin' hemorragia berriz gelditzen da.

-Goizaldeko 02:30 aldera: Erdi lotan nagoelarik ahoan odol gustoa sentitzen dut, altzatzen naiz eta sudurretik berriro odoletan ari naiz. Momentu horretan

'Interphonotik' ohartarazten diet (administrazio penitentiarioari) 'berriro odoletan ari naizela eta ez dela gelditzen'.

-Goizaldeko 02:45. Nire ziegako atea zabaltzen dute eta "Bruno GUEZAT" lehengo surveillant chef sartzen da ,atzean beste hiru-lau kartzelero daudelarik. Jada ziegan odol arrastro haundiak ziren; lababoa eta komuna odolez et odolezko konpresaz beterik, lurrean odola, ohe gainean... eta ez du "puto kasurik egiten" eta soilik esaten du: " berriro lehen bezala 20 minutu sudurra eztutzen egoteko eta SAMU rri deituko diola".

Momentu horretan atea utzi eta berehala, berarekin etorri kartzelera bat "Pompier bontaire" denak, esaten dio "Bruno GUEZET" : egoera oso larria dela eta zerbait egin behar zutela berehala. Bruno GUEZET en erantzuna zera da : "Toi ta gueule!!!".

-Goizaldeko 02:50. Momentu horretan hemorragia haunditzen da eta nire lagunei 'interphonotik' deitzeko eskatzen diet eta lehen bai lehen norbait etor dezala niri laguntza emateko. Apenas hitz egiten nuen zeren ahoa ere odolez beteta nuen.

Mundu guztia atea jotzen hasten eta momentu berean interphonotik egoera larritzen ari dela ohartarazi dute. Gure mezu zehatza zen "SAMU etortzen den bitartean nire ziegako atea irekitzeko eta norbait nirekin egon dezala zeren nik bakarrik ezin nuen hemorragia gelditu eta nire beldur haundiena konortea galtzea zen. Ondorioz kolpe txar bat hartu eta hemorragia haunditu eta neure odolean itotzea.

Egoera larritzen ari zen zeren ahotik ere odol koaguloak ateratzen zitzaizkidan, hori zer zen ere ez nekielarik.

'Bruno GUEZET'eren erantzuna dei guzti hauei "zero, aucun ,ezer ez..." Egoera hau 03:55 era arte iraun zuen hórrela.

-Goizaldeko 03:50 gutxi gorabehera. 'Bruno GUEZET'ekin zeuden kartzeleroak etortzen dira. Bera ez. Hori bai giltzik gabe zeren gaueko prozeduran giltzak lelengo surveillant chefak bakarrik du: 'Bruno GUEZET'ek.

Funtzionario bat nire ziegaren mirillatik begiratzen eta hitz egiten hasten zait, nik atea irekitzeko esaten diot eta horren erantzuna "haiek giltzarik ez dutela".

Funtzionarioak gero eta urduriago jartzen ziren zeren nire egoera gero eta okerragoa zihoan eta "Bruno GUEZET" brigadiera ez zen agertzen. Momentu hoietan gure ziegetatik entzuten genuen funtzionarioak "kristorenak botatzen brigadier horren contra", gainera denbora aurrera jarraitzen zuen eta hemorragia geroz eta haundiagoa eta ez zen gelditzen. Funtzionarioak eta nire kideen artean hitz egiten dute eta azken hauek 'que salten la cadena de mando (jerarkian salto egiteko) esaten diote funtzionarioei. Azkenean horrela gertatu zen.

-Goizaldeko 04:08 gutxi gora behera. Nire egoeraren larritasuna ikusita ,funtzionarioak 'saltan la cadena de mando'.

-Goizaldeko 04:16. Funtzionario hauek, kartzelako "Chef de Permancerekin" batera, "Bruno Guezet" eurekin delarik, nire ziegako atea irekitzen dute. Momentu hortatik aurrera nitaz funtzionaria bat arduratzen da. Gero jakin dugu funtzionaria hau Pompier bolontaire ere badela. Jada oso ahul nago eta funtzionarioek enfermeriara arte eramaten didate. Gure estaiatik beheko estaiaraino funtzionarioen artean eramaten naute. Gero gurgil aulki batean enfermeriraino. Behin enfermerian manta batzuk jartzen didate nire gainean zeren hots nengoen eta ainken sentzibilitatea galtzen hasia nengoen. Funtzionarioak erreleboka egiten zuten nire sudurreko hemorragiari euzteko, beste batek bere eskuekin nire ainkak berotzen zizkidan, beste

batek izerdia lehortzen, ura edateko jeringilla batekin ematen zizkidaten. Hau dena "funtzionarioa suhiltzaileak esanda eta antolatuta". Azken honek hartu zidan ere pultsazioa, tentsioa, oxigenoaren kapazitatea neurtu ere.

-Goizaldeko 05:30. Momentu larriena izan zen, zeren nire sudurra eta ahoa koaguloz beteta nituen eta jada ahotik ezin nuen arnasarik ere hartu. Ordu hortan ea ea konortea galdu nuen, baina suhiltzaileari esker esnatuta gelditzea lortu nuen. Aspiradore edo zerbait antzekoarekin ahoan nituen koaguloak kentzen saiatu ziren baina aspiradore hori ez zen oso egokia hortarako. Ni txistu egitea saiatzen nintzen baina trabatua gelditzen zen nire eztarrian, denbora guzti honetan ere "funtzionarioak ez zuten ulertzen nun ostia ziren SAMUkoak", zergatik anbulantzia ez zen iristen. Haien urduritasuna geroz eta haundiagoa zen. Ordu honetan ere konturatu nintzen, kartzelako Chef de detention zibilez jantzita hor zegoela eta ere entzuten nuen "prokuradorearekin harremanetan zirela".

-Goizaldeko 06:10. Anbulantzia irizten ari dela entzuten dut. Enfermeriatik sarrera aino silla de ruedas batean eramaten didate. Denbora luzea neraman "Bruno GUEZET ikusi gabe baina "hor agertu zen esku burdinak eta bi ainka artean lotzeko kate batzuekin". Kartzeleroak ere harrituta zeuden bere buru-gabe konportamenduarekin eta komentatu zidaten ez pentsatzeko eta ez egiteko kasurik. Guzti honi buruz beranduago hitz egingo genula.

-Goizaldeko 06:30. Chateauroux hospitaleko urgentzietara heltzen naiz eta hor medikuen eskuetan gelditzen naiz. Lehenengo zaintzak egiten dizkirate, tentsioa hartu, odola atera, perfusioa jarri eta ORL zaín gelditzen naiz.

Ordu laurden batera ORL-a irizten da, sudurra anestesiatzen dit, metxa batzuk sartzen dit sudurretik segurazki hemorragia gelditzeko edo zauria izteko eta azkenean koagulo guztiak sudurretik ateratzen hasi zen; Hai inpresionantea izan zen. Atzamar txikia bezain tamainoko koaguloak ateratzen zizkidan.

ORL-k esan zidan ebakuntzaren ondorioz (doublé desviation et cauterization) glandularen zati bat moztu nindutela eta glandula horren postilla (kostra) apurtu edo saltatu egin zela eta hori zela hemorragia sortu zuena.

Orl-ak ikusiz odol asko galdu nuela eta ikusiz zenbat arazoak egon ziren ni hospitalera aino iriteko "hor gelditzen nintzela 24 orduz" hartu zuen erabakia. Denbora horretan odolez hasten banintzen berriro, han bertan ebakuntza egingo nindutela.

Azkenean 36 ordu inguru gelditu nintzen hospitalean. Denbora guzti honetan ainkak lotuta izan nituen, nire gela Polizia nacionalak zaintzen zuen, hiru bat ziren ate aurrean. Gela hori omen presoentzat prestatuta ei dago. Ez dago ezer ez, ohe bat, WC eta dutxa. Ez mahairik, ez mesilla, ez armariu txiki bat zure gauzak uzteko, ezer ez! Dena lurrean egon behar zen.